

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Sobrongo hornikuntza sistemako hoditeria berrizatzeko proiektua. Tarte: A-4326 errepideko bidegurutzea, Bergondarako desbideratzea

Espediente-zenbakia: AO-A-2016-0104

Eskatzailea: Arabako Foru Aldundiako Ingurumen eta Hirigintza sailako Ingurumen kalitatearen zerbitzuko Obra Hidraulikoen atala.

Obra hauekin Renejas erreka eta izenik gabeko beste erreka baten saneamendu hodiarekin gurutze lurperatutak egingo dira.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten, Lantarongo Alkatetzan, edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 2a

Mediterraneoko Arroen bulegoburua
AZUCENA SALAZAR BAYONA